

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Agindua 194/2026 apirilaren 14koa. Onespena ematea Arabako turismoaren sektoreko irabazteko xederik gabeko erakundeetan egindako inbertsioei aurre egiteko laguntza deialdiari

Turismoa geroz eta garrantzi handiagoa duen sektorea da. Gaitasun handia du aberastasuna eta lanpostuak sortzeko, garrantzi eta eragin ekonomikoa handitzen jarraitzeko, eta gero eta indar handiagoa du Arabako ekonomian. Hain zuzen ere, Arabako turismo sektorea, gaur egungo atzeraldi ekonomikoa eta familien eta gainerako eragile ekonomikoen gastu murrizketa latza gorabehera, sektorerik dinamikoenetakoa da, eta azken urteotan izandako bisitari kopuruak eta horiek Araban emandako gauen kopuruak itxaropentsuak dira.

Arabako Lurralde Historikoak sektore hori garatzeko baliabide asko eta askotarikoak dauzka: baliabide naturalak, artistikoak, kulturalak, ondarekoak, gastronomikoak, paisaiaren ingurukoak, eta horiek guztiek berezko nortasuna ematen diote. Gainera, lurralde irekia da, koloreanitzia, modernoa eta abegitsua.

Arabako Foru Aldundiak agintaldirako diseinatu duen turismoko plan estrategikoak helburu nagusi hauek dauzka: turista kopurua handitzea eta haien batez besteko egonaldia luzatzea, eta arabarren turismoa sustatzea Arabako Lurralde Historikoan.

Horrez gainera, Arabako Foru Aldundiak uste du gure lurraldeko turismoaren garapenari egiten dion ekarpena izan behar dela elkarlanean jardutea Araban eta Euskal Autonomia Erki-degoan ari diren gainerako erakundeekin eta eragile ekonomikoekin. Dena dela, erakunde lan-kidetzak ez litzateke nahikoa izango Arabako turismo sektoreari indar handia emateko, baldin eta Arabako udalek, herriek edota kuadrillek eta elkarteek produktuak garatuko ez balituzte eta gure ondarea, kultura eta ingurumena ezagutarazteko eta babesteko jarduketak egingo ez balituzte.

Orain arte bezala, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zuzendaritzaren lehentasuneko helburuak dira Arabako helmuga turistikoaren kalitatea hobetzea eta produktu turistiko berriak sortzea. Horretarako, bere eskumenak baliatzen ditu erakunde publikoentzako eta entitate pribatuentzako laguntza lerroak ezartzeko eta haiei dirulaguntzak emateko, hau da, turismoa garatzeko, sustatzeko eta bultzatzeko programetan finkatutako ekintzak gauzatzeko neurriak abiarazteko, eta hori guztia publikotasun, lehia eta objektibotasunaren printzipioak aplikatuz egiten du.

Lurraldeko erakargune nagusien inguruan turismoko azpiegiturak garatzea eta hornitzea ekimen interesgarria da turistak erakartzeko. Turismorako azpiegitura horien bidez lortu nahi da turismo eskaintza gaika espezializatzea, oinarritzat hartuta gure lurraldeko kultura eta natura baliabide ugariak. Arabako Foru Aldundiak toki erakundearen turismoaren arloko azpiegiturak eta ekipamenduak sortzeko edo hobetzeko ematen dituen laguntzak eta pizgarriak eskainiko diren produktu turistikoaren desberdintasuna aintzat hartuz sustatu behar dira. Bestalde, helmuga turistiko garrantzitsuetarako inbertsioen xedea izan behar da turistek helaraztea probintziaren berezitasuna, tradizioa eta historia identifikatzen dituen bikaintasun irudia.

Horrela, inbertsio gastuei aurre egiteko irabazteko xederik gabeko erakundeentzako deialdi honek hainbat erakundek hartutako neurri ekonomikoen multzoa osatzen du, eta, beraz, horiekin guztiekin bateragarria da.

Horregatik guztiagatik, eta ahalik eta zabalkunderik handiena emateko eta publikotasun, lehia eta objektibotasunaren, eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betetzeko, turismo inbertsioko ekimenak arautuko dituen laguntza deialdia ezartzen da.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Onespena ematea turismoaren sektoreko irabazteko xederik gabeko erakundeetan egindako inbertsioei aurre egiteko laguntzen 2026ko deialdi publikoari.

Bigarrena. Deialdi hori arautu da kontuan hartuta Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zuzendaritzak norgehiagoka bidez dirulaguntzak ematea arautzen duten oinarri orokorrak (Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretua) eta foru agindu honen I. eranskinean xedatutakoa.

Hirugarrena.- Foru agindu honek arautzen dituen dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2026ko ekitaldirako aurrekontuko 30502G/432300/78100301 partidaren kontura ordainduko dira, zeina 16.791,00 euroko zenbatekoaz horniturik baitago.

Deialdi honen hasierako hornidura hasierako aurrekontuaren ehuneko 100 handitu ahal izango da, gehienez, dagozkion aurrekontu transferentzien bitartez, baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zuzendaritzaren beste partida batzuetan gerakinik badago.

Laugarrena.- Bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatutakoarekin, administrazio bidea agortzen duen ebazpen honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari, egintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkeztu daiteke Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegien aurrean, egintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen, eskumena duen jurisdikzian.

Bosgarrena.- Foru agindu hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko apirilaren 14a

Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Enplegu, Merkataritza eta Turismo zuzendaria
JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLES

ERANSKINA**ARABAKO TURISMO SEKTOREKO IRABAZTEKO XEDERIK GABEKO
ERAKUNDEETAN SORTUTAKO INBERTSIO GASTUEI AURRE
EGITEKO LAGUNTZEN DEIALDIA. 2026KO EKITALDIA****1. artikulua. Xedea**

Deialdi honen xedea da turismo sektoreko irabazteko xederik gabeko erakundeei laguntzea, norgehiagoka bidez dirulaguntzak emanez, lehiakortasuna hobetzeko inbertsioak egin ditzaten.

2. artikulua. Aurrekontu partidak eta gehieneko zenbateko osoa

2.1. Foru agindu honek arautzen dituen dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2026ko ekitaldirako aurrekontuko 30502G/432300/78100301 gastu partidaren kontura ordainduko dira, zeina 16.791,00 euroko zenbatekoaz horniturik baitago.

2.2. Deialdi honetarako zehaztutako aurrekontu partidaren hasierako hornidura hasierako aurrekontuaren ehuneko 100eraino handitu ahal izango da, kasuan kasuko aurrekontu transferentzien bitartez, baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zuzendaritzaren beste partida batzuetan gerakinik badago. Era berean, partida horretan egon litezkeen gerakinak Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zuzendaritzaren beste partida batzuetara transferitu ahal izango dira.

3. artikulua. Onuradunak

3.1. Laguntza lerro honetan jasotzen diren onurak eskura ditzakete probintzia eremuko irabazteko xederik gabeko erakundeek, baldin eta Eusko Jaurlaritzako Erakundearen Erregistroan edo Eusko Jaurlaritzako Elkarrean Erregistroan behar bezala erregistratuta badaude eta helburu soziala turismoa sustatzea badute edo Arabako Lurralde Historikoan proiektu turistiko edo gastronomiko bat garatzen badute. Landa garapeneko elkarteak kanpoan geratuko dira berariaz.

3.2. Horrez gainera, erakunde onuradunek betekizun hauek bete behar dituzte:

- Enpresa jardueraren egoitza fiskala Arabako Lurralde Historikoan egotea.
- Egunean izatea Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak, bai dirulaguntza emateko ebazpena eman aurretik, bai dirulaguntza ordaindu aurretik.

3.3. Berariaz baztertuta geratzen dira 2026ko ekitaldirako Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuan Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zuzendaritzaren dirulaguntza izendun bat jaso duten eskatzaileak, baldin eta haren xedea bat badator dirulaguntzaren xedearekin, bai eta haiekin elkartuta daudenak ere, emakidaren unean hitzarmena sinatuta izan edo ez; baztertuta geratzen dira, era berean, laguntza lerro honen aurreko deialdietan emandako beste dirulaguntza batzuk epe barruan egin edo justifikatu ez dituztenak, salbu eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zerbitzuaren iritziz ez-betetze horren arrazoiak behar bezala justifikatu badira.

3.4. Onartzeko prozesuan edo funtzionamenduan sexuagatik bereizkeria eragiten duten erakundeak ezin dira izan onuradunak, hala xedatzen baitu EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak 23.2 artikuluan.

Halaber, ezingo dute parte hartu, kasuan kasuko zehapenak ezarritako epean, sexua dela-eta bereizkeria egiteagatik administrazio zehapena edo zehapen penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoek, ez eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen testu bategina onesten duen EAEko martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua dela bide debeku horrekin zehatutakoek ere.

4. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen gastuak

4.1. Diruz lagundu ahal izango dira proiektuak abian jartzeko inolako zalantzarik gabe diruz lagungarriak diren gastuak, beharrezkoak direnak eta ezarritako epean egiten direnak.

Hiru eratakoak izan ahal izango dira:

A) Turismo irisgarritasuna hobetzeko inbertsioak. Esate baterako, honako hauek sartu ahal izango dira:

1. Kanpotik sartzea eta desplazamendu horizontalak edota bertikalak egitea errazten dituzten obrak, bai eta komunak, atea eta pasabideak etab. ere, oztopo arkitektonikoak kentzeko egiten direnak barne.

2. Ikusmena, entzumena edo ukimena erabiliz orientatzeko panelak edo euskarriak.

3. Zerbitzuei buruzko argibideak braillez edo ikusmen eragozpenak dituztenek irakurtzeko egokituak.

4. Desgaitasuna duten pertsonen informazioa modu autonomoan eta bakoitzaren aniztasuna kontuan hartuta eskuratzeko aukera ematen dieten web teknologiak.

5. Honako hauek erostea: Joëlette aulkiak edo/eta pertsona itsuak eta ikusmen urrikoak natura baliabideetan zehar gidatzeko ezinbestekoak diren norabide barrak, bai eta turismorako baino erabiliko ez den beste edozein ibilgailu elektriko ere.

B) Erakunde eskatzailearen turismo jarduerak sortu, abian jarri, zabaldu eta dibertsifikatzeko beharrezkoak diren aktibo finkoetako inbertsioak. Besteak beste, honako hauek eskuratzeko:

1. Alokairuko bizikletak turismo xedeetako, umeak eramateko aulkiak barne.

2. Auto eta autobus elektrikoak.

3. Behaketa astronomikoa egiteko edo animalia espezieak begitatzeko teleskopioak.

4. Instalazioak erabilera turistikorako egokitzeko obrak.

5. Produktu edo zerbitzu turistikoak eskaintzeko beharrezkoak diren altzariak eta ekipamendua.

6. Errotuluak, eguzki oihalak eta saretak.

7. Irudi korporatiboa diseinatu eta garatzea.

8. Ekipo informatikoak.

9. Turismo argibideak ematen dituzten taulak, seinaleak eta euskarriak.

C) Baliabide turistikoaren edota ondare historikoaren berreraikitze birtuala, errealitate areagotuko mota guztietako aplikazio interaktiboak barne, berreraikitze birtualeko ibilbide bat egin ahal izateko, edozein erabilzailerik Arabako baliabide turistikoak behatzeko aukera emango diona, smartphone, tableta edo ordenagailu baten bidezko murgiltze esperientzia batean.

D) Nomada digitalen proiekturako guneak gaitzeko gastuak (Bulegoa) (coworking guneak, altzari ergonomikoak erostea, argiztapen sistemak, inprimagailuak...).

4.2 Laguntza inbertsioak Arabako Lurralde Historikoan kokaturik egon behar dira.

4.3 Eskatzaile batek mota desberdinetako inbertsioak aurkezten baditu, eskaera bat aurkeztu beharko du inbertsio mota bakoitzeko (gehenez 2 eskaera eskatzaile bakoitzeko). Eskatzaileak bi eskaera baino gehiago aurkezten baditu, inbertsio motaren arabera 9. artikuluko a) letran puntuaziorik handiena jasotzen duten bi eskaerak bakarrik hartuko dira kontuan.

4.4. Zergak diruz lagundu ahal izango dira, baldin eta dirulaguntzaren onuradunak ordaindu baditu. BEZa eta gainerako zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsatu ahal badira, ez dira inolaz ere diruz lagunduko, eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere ez.

4.5. Diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren ehuneko 100 arteko azpikontratazioa egitea baimentzen da, baina Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 27. artikuluan xedatutako betekizunak bete beharko dira.

4.6. Ez da onartuko dirulaguntzarako eskatzailea ez beste jabe batek aurrez erabilitako ekipamenduak edo inbertsioak erostea.

5. artikulua. Aplikazio eremua eta jarduerak gauzatzeko epea

Deialdi honen onuradunak diren erakundeek 2025eko azaroaren 29tik 2026ko azaroaren 25era bitarteko aldian egin beharko dituzte inbertsioak, bi egun horiek barne.

6. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoak eta mugak

6.1. Foru agindu honetan jasotzen diren laguntzak diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 80raino iritsiko dira (ikusi Foru Gobernu Kontseiluaren 49/2019 Foru Dekretua, azaroaren 12koa, 7.3 oinarri orokorra). Nolanahi ere, dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 6.000,00 eurokoa izango da onuradun bakoitzeko.

6.2. Hala ere, deialdia ebatzitakoan ez bada 2.1 artikuluan jasotako aurrekontu kreditua agortu, sortutako gerakina erabili ahal izango da, hainbanaketaz ehuneko 90eraino handitzeko onuradun bakoitzaren dirulaguntza ehuneko.

6.3. Erakunde eskatzailea Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zuzendaritzaren beste laguntza programa batzuen onuradun izan bada programa honen kargura onetsitako proiektuen antzeko izaera duten proiektuetan, diruz lagundu daitekeen oinarria egokitu egingo da araudi honetan ezarritako gehieneko mugak ez gainditzeko.

6.4. Eskaerak dirulaguntza jaso ahal izan dezan, proposatutako dirulaguntzaren gutxieneko zenbateko hau ezartzen da, esleipena egiten den unerako: 1.000,00 euro.

7. artikulua. Prozeduraren instrukziorako eskumena duten organoak

7.1. Prozeduraren instrukzioa Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zerbitzuak egingo du.

7.2. Balorazio batzordea honela eratuta egongo da:

Lehendakaria: Enplegu, Merkataritza eta Turismo zuzendaria, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Bokala: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zerbitzuaren burua, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Idazkaria: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zerbitzuko teknikari bat.

8. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea eta modua

8.1. Eskaerak elektronikoki aurkeztu beharko dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoan dagoen izapide espezifikoaren bidez (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/irabazteko-asmorik-gabeko-erakundeetan-turismo-inbertsioei-aurre-egiteko-egohiko-laguntzak>). Dena dela, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa ere aplikatuko da.

AFAREN egoitza elektronikokoan zerbitzuak erabiltzeko, nahitaezkoa da modu telematikoan identifikatzea, ziurtagiri digital baten edo BAKQ sistemaren bidez, hemen: <https://egoitza.araba.eus/eu/hasiera>.

Eskaerak eskatzailearen ordezkari batek ere aurkeztu ahal izango ditu, baldin eta aurrez izapide hori gauzatzeko behar den baimen maila ezarri bada egoitza elektronikokoan: <https://egoitza.araba.eus/eu/baimenak>.

8.2. Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunean hasiko da, eta 2026ko maiatzaren 15ean amaituko.

8.3. Erakunde eskatzaileek egoitza elektronikokoan zehaztutako eskaera inprimakia bete beharko dute eta honako dokumentazio hau erantsi:

- a) Eskatzailearen jarduera memoria eta dirulaguntzaren xede diren inbertsioen memoria.
- b) Lana egingo duen edo egin duen kanpoko profesionalaren edo hornitzailearen eskaintza (proformako edo behin betiko fakturak, kanpoko aurrekontua edo, halakorik balego, kontratu sinatua).

– c) Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada sektore publikoko kontratuak xedatzen dituzten araudiek kontratu txikirako ezarritako zenbatekoa baino (obrak, 40.000,00 euro baino gehiago; gainerakoak, 15.000,00 euro), erakundeak ondasun entregarako konpromisoa hartu baino lehen eskatu dituen 3 eskaintza erantsi beharko ditu, kasu hauetan izan ezik: diruz laguntzeko diren gastuen ezaugarri bereziak direla-eta, merkatuan ez dagoe-nean ondasun hori hornitzen duen pertsona nahikorik; edo gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin bada. Aukeratutako eskaintza ez bada ekonomia aldetik onuragarriena, egindako aukera espresuki arrazoitu beharko da memoria batean.

– d) Estatutuak.

– e) Eusko Jaurlaritzaren Elkarleen Erregistroko inskripzioaren ziurtagiria, edo, fundazioen kasuan, Eusko Jaurlaritzaren Fundazioen Erregistrokoa.

– f) Hala dagokionean, diruz laguntzekoak diren jardueretan BEZaren aitortpena aurkeztu beharretik salbuetsita egotearen egiaztatzea. Salbuetsita egon eta dokumentazio hori deialdi hau ebatzi baino lehen aurkezten ez bada, BEZa ez da diruz lagunduko.

8.4. Eskaera egiten duen pertsona fisikoak edo juridikoak balidatu egingo ditu Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zuzendaritzak laguntza eskatzeko ereduaren identifikatutako harremanetarako pertsonaren helbide elektronikora igorritako komunikazio guztiak.

8.5. Araudi aplikagarriaren arabera, Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zuzendaritzak datu hauek egiaztatuko ditu administrazio eskuduneari:

– Zerga betebeharrak egunean izateari buruzko informazioa.

– Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izateari buruzko informazioa.

– Eskatzailearen zerga egoitzari buruzko informazioa,

Eskatzaileak ofiziozko egiaztapen horren aurka egin ahal izango du. Hala eginez gero, eskatzaileak aurreko betebeharrak bete dituela egiaztatzen duten agiri guztiak aurkeztu beharko ditu laguntza eskaeran.

9. artikulua. Proiektuen hautaketa eta balorazio irizpideak

9.1. Artikulu honetan adierazitako irizpideen arabera baloratuko da 4.1 artikuluan zehaztutako inbertsio mota bakoitza.

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zerbitzuak birmoldaketak egin ahal izango ditu, eskatzaile bakoitzak aurkeztutako inbertsioak bereiziz edo multzokatuz, birmoldaketa horren bidez aurreko 4.1 artikuluan ezarritakora hobeto moldatzen dela ulertuz gero.

a) Inbertsio mota (70 puntu, gehienez).

Turismo irisgarritasuna hobetzeko inbertsioak (A mota)	70 puntu
Turismo jarduerak sortu, abian jarri, zabaldu eta dibertsifikatzeko aktibo finkoetako inbertsioak (B mota)	45 puntu
Baliabide turistikoaren edota ondare historikoaren berreraikitze birtuala (C mota)	30 puntu
"Bulegoa" nomada digitalen proiekturako espazioak gaitzeko inbertsio gastuak (D mota)	30 puntu

b) Proiektuaren berrikuntza maila, oro har, eta zein neurritan laguntzen duen turismo eskaintza dibertsifikatzen (30 puntu gehienez).

Proiektuak, oro har, izaera berritzaile nabarmena du eta eskatzailearen turismo eskaintza dibertsifikatzen laguntzen du	30 puntu
Proiektuak, oro har, izaera berritzaile nabarmena du edo eskatzailearen turismo eskaintza dibertsifikatzen laguntzen du	20 puntu
Proiektuak ez du izaera berritzaile nabarmenik eta ez du laguntzen eskatzailearen turismo eskaintza dibertsifikatzen	10 puntu

9.2. Edonola ere, dirulaguntza lerro honen onuradun izan ahal izateko, eskatzaileak deialdi honetako 3. artikuluan ezartzen diren betekizun guztiak bete behar ditu, eta, horrez gain, aurkeztutako jarduketaren multzoak, gutxienez ere, 50 puntu lortu beharko ditu balorazioan.

9.3. Azkenik, onuradunak hautatzeko eta bakoitzari dagokion zenbatekoa zehazteko, Diputatuaren Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretu zazpigarren oinarrian zehaztutakoari jarraituko zaio.

9.4. Aurkeztutako eskaeran Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zerbitzuaren ustez dirulaguntzaren xedeari behar beste laguntzen ez dioten inbertsioak egonez gero, kanpoan utzi ahal izango dira adjudikatu behar den dirulaguntza kalkulatzeko. Halaber, entitate onuradunak 6.1 apartatuan ezarrita dagoen diruz lagundu daitekeen gehieneko aurrekontua ahitzen bada, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zerbitzuaren ahala izango da zehaztea zein kontzeptu diren diruz laguntzekoak.

10. artikulua. Ebazteko eta jakinarazteko epealdia

10.1. Organo eskudunak, balorazio batzordearen proposamenez, bidezko deritzon ebazpena emango du. Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 23.4 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, prozeduraren ebazpena eman eta jakinarazteko sei hilabete izango dira, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita. Epe horretan esanbidezko ebazpena ematen eta jakinarazten ez bada, administrazioaren isiltasunak eskaera ezesten duela ulertuko da, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 23.5 artikuluan xedatzen duenaren arabera.

10.2. Jakinarazten den ebazpenak administrazio bidea agortzen du, eta bat etorritz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatutakoarekin, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkeztu daiteke Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegien aurrean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

11. artikulua. Dirulaguntzak justifikatzea eta ordaintzea

11.1. Dirulaguntzen likidazioa administrazio ebazpenean agintzen den bezala egingo da, bertan zehazten diren betekizun eta baldintzak bete ondoren.

11.2. Dirulaguntzak bitarteko elektronikoen bidez justifikatu behar dira, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bitartez erabil daitekeen erregistro elektronikoa.

Dirulaguntzaren justifikazio gisa elektronikoki aurkeztutako dokumentuek bat etorri beharko dute interesdunaren esku egongo den jatorrizkoarekin, eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zerbitzuaren eskura jarri beharko ditu hala eskatzen zaionean.

Bat etorritz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28.7 artikuluan ezarritakoarekin, erakunde onuraduna da dokumentazioa egiazkoa izatearen erantzulea.

11.3. Arabako Foru Aldundiak onartu ahal izateko dirulaguntzaren zenbateko justifikatua ordaintzeko betebeharra, onuradunak agiri hauek aurkeztu beharko ditu 2026ko azaroaren 25erako (egun hori barne):

– Egingo jarduketaren/inbertsioen memoria.

– Fakturak eta gainerako frogagiri baliokideak.

– Hiru eskaintza eta, eskaintzarik merkeena aukeratu ez bada, horren arrazoiak azaltzen dituen justifikazio txostena (bakar-bakarrak partidaren batek eskaera egiteko garaian hiru eskaintza aurkeztera behartzen ez bazuen eta geroago benetako gastuak ezarritako 40.000,00 euroko mugara heldu edo hortik gorakoak izan badira obretan edo 15.000,00 eurokoa gainerakoetan).

– Hauei buruzko informazioa jasotzen duen erantzukizunpeko adierazpena:

a) Aurkeztutako datuak egiazkoak direla eta aurkeztutako kopiak jatorrizko dokumentuekin bat datozela.

b) Dirulaguntza honetaz gainera, hemen diruz lagundutako kontzeptuetarako beste diru sarrera edo dirulaguntza batzuk lortu diren. Baiezkoa bada, diru sarrera horien justifikazioa aurkeztuko da, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

Faktura elektronikoak aurkeztuz gero, Factura-e motako estandarren arabera izan beharko da haien formatua.

Profesionalek jaulkitako fakturen kasuan, erakunde onuradunak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kontura egin behar diren atxikipenen zenbatekoa ordaindu beharko du.

11.4. Onuradunak Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zerbitzuan 2027ko apirilaren 2ra arteko epean, egun hori barne, fakturak ordaindu izana justifikatu ondoren ordainduko du Arabako Foru Aldundiak dirulaguntzaren zenbateko justifikatua. Formatu hauetako edozeinetan aurkeztu ahal izango da fakturak ordaindu izanaren justifikazioa:

– Banka elektronikoaren bidez egindako banku laburpenak edota transferentzia aginduak, zehaztuta dutenak ordainketaren ordaintzailea eta onuraduna, zenbatekoa eta data.

– Tiketak (faktura erraztuak), baldin eta Fakturazio Araubidearen 7. artikularen 2. eta 3. apartatuetan xedatutakoaren arabera egin badira (maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretua), hau da, ordaindu beharreko kopurua ordaindu dela frogatzen duten faktura erraztu kualifikatuak izatea, honakoak adierazten dituztenak: hartzailearen IFZ eta helbidea, esleitutako zerga kuota bereizita, diruz lagundutako jarduketa, eta tiketa jaulkita dagokion zenbatekoa ordaindu dela.

– Eskurako ordainketen kasuan, frogagiritzat hartuko da fakturaren erakunde jaulkitzailearen ziurtagiri sinatua edota zigilatua, zeinetan faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data agertu beharko baitira, betiere zenbateko hori eskudiruzko ordainketei buruz indarrean dagoen araudian ezartzen den zenbatekoa edo handiagoa ez bada.

Profesionalek jaulkitako fakturak direla-eta, onuradunak epe horretan bertan aurkeztu beharko ditu aurkeztutako 110 hiruhileko ereduak (atxikipenak eta PFEZren konturako sarrerak), horiek ordaindu izanaren egiaztapena eta 190 ereduak (atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena), egindako atxikipenen sarrera egiaztatzen ahal izateko.

11.5. Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo hortik gorakoa (edo horren kontrabalioa atzerriko monetetan) duen eragiketarik.

Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

11.6. Ordainketak arinago egin daitezten, agiriak kasu bakoitzerako ezarritako epemuga baino lehen aurkeztu ahal izango dira.

11.7. Justifikatutako gastuen guztirakoa diruz lagun daitekeen aurrekontuaren zenbateko bera edo handiagoa izan beharko da. Diruz lagundu daitekeen aurrekontu horretara iritsi ezean, dirulaguntza proportzioan murriztuko da, eta dagokion kopurua baliogabetuko da.

11.8. Dirulaguntza jaso dezaketen kontzeptu eta zenbatekoetan aldaketak onartu ahal izango dira, baldin eta hasieran onetsitako diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren muga gainditzen ez bada eta dirulaguntza jasoko zuen kontzepturen bat egin gabe geratu bada ere. Desbideratze horiek Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zerbitzuen oniritzia beharko dute, salbu eta funtsezko aldaketak egiten badira, halakoei Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zuzendaritzak eman beharko baitie oniritzia.

11.9. Baldin eta 6. artikuluan ezarritako dirulaguntza muga aplikatu bada, onargarria izango da diruz laguntzeko den gastuan murrizketak egitea, onartutako dirulaguntza aldatu gabe;

alabaina, beharrezkoa izango da dirulaguntzaren xedea betetzea, eta errespetatzea diruz lagundutako gastuaren gutxieneko zenbateko justifikatu beharrezkoa, alegia, operazio honen emaitza: esleitutako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa zati aplikatutako dirulaguntza ehunekoa.

11.10. Epe horiek igaro eta dirulaguntza ordaintzeko betebeharra onartzeko zein dirulaguntza ordaintzeko aurkeztu beharreko agiriak aurkeztu ez badira, edo agiriren bat aurkeztu ez bada, dirulaguntza gutxitu edo baliogabe utziko da, kasu bakoitzari dagokionaren arabera.

12. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

12.1. Oinarri arautzaile orokorrak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuak hamahirugarren oinarrian ezartzen duena aplikatuko da. Gainera, jarduketek jaso ditzaketen gainerako laguntzak, edozein izanda ere laguntza mota eta hura ematen duen organoa edo administrazioa, bateragarriak izango dira foru agindu honetako laguntzekin, baldin eta, bai osotara, bai diruz lagundutako jarduera bakoitzean, laguntzen baturak ez badu gainditzen diruz lagundutako jardueraren kostua.

12.2. Dirulaguntza eskaera aurkeztu eta gero beste laguntzaren bat lortzen bada, ahalik eta lasterren eman beharko zaio horren berri, idatziz, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zuzendaritzari, zeinak eskatutako laguntza murriztea edo ukatzea proposa baitezake.

12.3. Laguntza deialdi honek bete egingo ditu Europako Batzordearen unean uneko errege-lamendu indardunetan ezarritako "minimis" arauak. Horretarako, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzko Europako Batzordearen abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduak 3.2 artikuluan adierazten du estatu kide batek enpresa bakar bati emandako minimis laguntzen guztizko zenbatekoa ezin dela izan 200.000,00 euro baino handiagoa hiru ekitaldi fiskaleko edozein alditan.

13. artikulua. Eskaerak egokitzea

Foru agindu honetan araututako dirulaguntza deialdian parte hartzerik ez duten hirugarren pertsonen jarduketak –dela erabaki honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez dutelako, diruz laguntzea nahi den kontzeptuak diruz lagundu ezin direlako edo, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zerbitzuaren iritziz, proiektu horiek Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zuzendaritzak aurten kudeatutako beste laguntza lerro batzuei hobeto egokitzen zaizkielako eta horrelakoren bat eskuratu ahal dutelako– dagokien laguntza lerrora eraman ahal izango dira ofizioz.

14. artikulua. Azken klausula

Foru agindu honetan ezarritako prozedura Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaile orokorretan ezarritakoaren mende dago, bai eta honako hauek dirulaguntzei buruz xedatzen dutenaren mende ere: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinak Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren araudia onesten baitu, eta dirulaguntzei buruzko geroko xedapen guztiak.